

TXIN
PART

72

Hezkidetza

2020

URTARRILA - EKAINA

URTARRILAK 26

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna



OTSAILAK 9

Astigarragatik Oiartzuna txangoa



OTSAILAK 21

Inauteriak



MARTXOAK 19-25

Bretainia elkartrukea



MAIATZA 17

Rafting-a Bidarrain (Nafarroa Beherea)



MAIATZA

Urmendi Eguna



URTARRILAK 18-19

Iraupen eskiko ikastaroa eta raketekin txangoa Somportera (Aragoi)



OTSAILAK 4

Santa Ageda bezpera



OTSAILAK 14-15-16

Burrunba eta Ihoteak

MARTXOAK 15

Irundik Oiartzuna txangoa

APIRILAK 23

Liburuaren Nazioarteko Eguna

MAIATZA

Lexoti Bertso Sariketa



EKAINAK 6

Ikastola Eguna



Gai nagusiak	4
Berrikuntza	6
Idazkaritza - Zuzendaritza	8
Irakasleak	10
Guraskoak partaide	11
Urmendi Haur Eskola	12
Oiartzo	14
Hatzak bete lan	15
Ikastolako taldea	38
Eskolaz kanpokoak	40
Laburrak	42

ARGITARATZAILEA

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129/2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BATUTAINPRIMAKETA
ANTZA

Paper birziklatuan inprimatua

Kaixo denoi, hemen gaituzue berriro, 53. ikasturtean buru-belarri lanean, eta noski, **Txinpart**-eko aleak ezin zuen zita honetara huts egin. Honako hau 72. alea dugu eta beti bezala edukiz beteta dator, denon gustukoa izango denaren itxaropenarekin. Asko gara Hautzaro Ikastolako komunitatea osatzen dugunak, eremu askotan egiten dugu lan eta **Txinpart** horren guztiaren erakusgarri izatea nahiko genuke.

Ale honetan, besteak beste, ikasturte honetan martxan jarri ditugun berrikuntzen berri jasoko duzue: LH 1. zikloan marko berriaren inguruko lanketa, LH 4. mailan EKI proiektua, DBHko ordutegi berriaren gaineko lehenengo ondorioak, komunikazioaren planteamendu berria edo Hautzaro Ikastolako Hezkidetza Plana, besteak beste. Berrikuntzez gain, betiko txokoentzat ere tokia izango dugu, noski, eta gure ikasleek egiten dituzten hainbat lan ezagutzeko aukera ere izango duzue **Hatzak bete lan** atalean.

Tartean, ongi etorria eman diegu zuzendaritzako kide berriei: Itziar Muguruza (HHko ikasketa burua), Koro Uria (LHko ikasketa burua), Ramon Gorrotxategi (DBHko ikasketa burua), Beñat Mendizabal (LH 1. zikloko koordinatzailea). Eta eskerrak helarazi amaitu duten kideei: Marilo Zubizarreta (LH 1. zikloko koordinatzailea) eta Agurtzane Zubizarreta (LH 2. zikloko koordinatzailea). Aldiz, jarraitzen duzuenoi animo asko!

Ez dizuet gehiago aurreratuko, hartu tarte bat, eroso jarri eta zuen gustura nabigatu ale honetako orrialdeetan, aurrera eta atzera.

Goza ezazue!



HEZKIDETZA PLANA

Hautzaro Ikastolan

Hautzaro Ikastolak bizitzarako hezkuntza eskaini nahi die haurrei eta gazteei eta, nola ez, haien familiei; finean, Oiartzungo herritar guztiei. Hori hala izanik, herritar libreak, zoriontsuak eta kritikoak heztea dugu helburu. Argi dugu eraikitza goazen hezkidetza plana helburu hori lortzeko tresna besterik ez dela; ez da helburua bera. Hausnartzeko, eztabaidak ematen laguntzeko, kontu desberdinak azaleratzeko... bitarteko bat izatea nahi dugu proiektu hau.



Hezkidetza Plana agendaren erdigunera

Oiartzungo Hautzaro Ikastola 1967. urtetik haurrei eta gazteei bizitzarako hezkuntza integrala ematen lanean dabilen ikastetxea da eta, horretarako, proiektuak garatzen, lantzen eta egokitzen gabiltza etengabe. Datozen ikasturteetarako Hezkidetza Plana diseinatu dugu, eta gaia gure agendaren erdigunean kokatuko dugu bizikidetzaren atarikipean dauden beste proiektuekin batera: Kiva, Golden 5, Haziak.

Formazioetatik hasi, materialekin jarraitu eta espazioaren antolaketari berari ere eutsi nahi dion plana egin dugu. Finean, hezkidetzatik begiradak aldatu, jazarpen eta indarkeria egoerei aurre egiten ikasi eta botere harremanak eraldatu nahi ditugu, elkarbizitzaren eta bizikidetzaren izenean.

Zergatik Hezkidetza Plana?

Gure egungo jendartea osatzen duten norbanakoak bi kategoriatan sailkatzen dira: emakumea eta gizona. Sailkapen horri antolaketa hierarkiko bat ezartzen zaio, gizonari esleitutakoa baloratuz eta goraipatuz eta emakumeari esleitutakoa, berriz, gutxietsiz. Era berean, sailkapen horretatik at dagoena ere sistematikoki baztertzen du egungo antolaketak. Binomio horretan oinarrituz eratzen da ere genero sistema, haurrak garenetik gure bizitza antolatzen duena eta pertsonon izatea nahiz nortasunak moldatzen dituen. Gizonei esleitutako baloreen goraipatzeak eta emakumeenak gutxiesteak botere harreman bat sortzen du horien artean, eta horren eraginak maiz azaleratzen dira indarkeria moduan.

Bi kategoria horien eraginez hezkuntza ereduak ere androzentrista da: hau da, gizonen ereduak da ardatz nagusia eta, horrekin batera,

sexismoa transmititzen du. Transmisio horrek emakumeen rola bigarren mailan jartzea eta ikusezin bilakatzea dakar ezinbestean, emozioen lanketa nahiz lanketa afektiboak baztertuz. Espazioen antolaketa edota lanbide orientazioak ere aurrez aipatutako ideiak besterik ez dituzte indartzen.

Hautzaro Ikastolak sistemak antolatutako bi kategorietatik harago joan nahi du, aukera zabalak eskaintzen dituen hezkuntza bermatzeko eta zerumuga berriak eraikitzeko. Era berean, hezkuntzak haurrengan duen eraginaz kontziente gara eta gure hezkuntza eraldatzen jarraituko dugulako osatu dugu ikastetxeko Hezkidetza Plana. Irakasleak formatu, praktikak aldatu eta egunerokotasunean urrats txikiak egiten jarraitzeko.

Eta hori nola? Zein dira urratsak?

Hezkuntza sistema honetan iraunarazten dituzten rola, aurreiritziak, metodologiak, ereduak... iraultzeko eskumena eta aukera eskaintzen du hezkuntza sistemak berak. Iraunarazteko tresna hutsa izatetik, egungo egoera aldatzeko giltza izatera pasatzen baita. Hautzaro Ikastolak herritar askeen bidelagun izateko hautua egin du, eta argi dugu lan handia dugula egiteko.

Hori dela eta, gure ikastetxean txertatu nahi dugu hezkidetza, rola deuseztatuz eta aukera berdinak eskainiz ikasle guztiei. Materialen azterketa bat egin eta emakumeen presentzia bermatuko dituen edukiak gelara ekarri. Espazioaren antolaketa desantolatu eta denen erabilera bermatuko duen eremua sortuz. Lehiakortasun indibidualean oinarritutako ereduak irauliz eta berriak sortuz. Geure buruak formatuz eta betaurreko moreak jarri.

Marko berria Hautzaro Ikastolan

Marko berriaren helburua ikasketa prozesuan haurra erdigunean jartzea da. Hau da, ikasketa prozesua haurren beharretan oinarritzen da, eta ez alderantziz. Haurren beharra eta nahia ez dira sinonimo. Hori guztia lortzeko, helduaren begirada beste bat da.

Metodologia hau aurrera eramateko baldintza bat baino gehiago behar dira. Horietako bat espazioaren egitura da, eta bide honetan lehen urratsak eman ditugu Hautzaro Ikastolan. Haur Hezkuntzan eremu irekiak ditugu eta Lehen Hezkuntzan ere, zenbait unetan, eremu irekietan egiten dugu lan.

Honetan guztian, oinarritzko helburuak eta konpetentziak ardatz nagusitzat hartuta, helduaren rola garrantzi berezia du, bere begiradak ahalbidetuko baitu haurren garapena.



EKI LH 4.maila

Dagoeneko EKI proiektua LH 4. mailan inplementatu da. EKI proiektua gauzatzeko prozesua euskal curriculumaren garapeneren baitan ulertzen den prozesua da.

Konpetentziaren arabera ikuspegitik (oinarritzko konpetentzia metadiziplinarraketa diziplinaren arabera) proposatzen duen metodologiak ikaslearen irteera-profila oinarritzat hartuz, ikaslea egoera esanguratsuetan eta arazo konplexuen aurrean jartzen du. Ikasleak, arazo horri irtenbide egokia emateko ikasitako guztia era integratuan mobilizatzea eta transferitzea lortu behar du.





DBHko ikasleen beharretara egokitzeko ordutegi berriaren arratsaldeetako eskaintza

lazko ikasturtean ikastolako komunitatean aurrera eramandako hausnarketa prozesuaren ondorioz, aurten DBHko ikasleek ordutegi berria estreinatu dute: 08:00etatik 14:05era.

Aldaketa honekin batera, Haurtzaro Ikastolak arratsaldeetako eskaintza osatu du ikasleentzat eta gurasoentzat:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
08:00-14:05 Goizeko ordutegia	08:00-09:50 2 saio 09:50-10:05 1. jolas garaia 10:05-11:55 2 saio 11:55-12:10 2. jolas garaia 12:10-14:05 2 saio				
14:05-15:15	BAZKARIA				
15:15-16:15	Zientzia eta Matematika tailerra	Hizkuntza tailerra		Ulermen eta adierazpen tailerra	Eskuttun Taldea
		Tutoretza arreta: Gurasoei zein ikasleei		Tutoretza arreta: Gurasoei zein ikasleei	
		AusK Taldea		Talde Berdea	
	Orientazio arreta				
	Eskolaz kanpoko ekintzak	Eskolaz kanpoko ekintzak	Eskolaz kanpoko ekintzak	Eskolaz kanpoko ekintzak	Eskolaz kanpoko ekintzak

1.- TAILERRAK

Ikasleak ikasketetan arrakasta lortzeko eta egunerokoan aurrera egiteko estrategiak garatzen trebatzeko hiru tailer sortu ditugu: Zientzia eta Matematika tailerra, Hizkuntza tailerra eta Ulermen eta Adierazpen tailerra. Honako tailerretan parte hartzeko proposamena etapako irakasleek egin diete ikasleei eta gurasoei.

Zientzia eta Matematika tailerra:

Ikasleak zientzian eta matematiketan trebatzea helburu duen tailerra da. Bertan, problemen ebazpenerako estrategiak, hizkuntza matematikoaren erabilera, ikerketaren metodologia eta zientziei dagozkien beste hainbat prozedura lantzen dituzte, arlo horiekiko zaletasuna indartzearekin batera.

Hizkuntza tailerra:

Ikasleak idatzizko eta ahozko ekoizpena hobetzeko hizkuntza tresnak lantzea helburu duen tailerra da. Horretarako, testu mota ezberdinak aztertu eta bertako osagaiak eta ezaugarriak lantzen dituzte. Euskaratik abiatuta eta oinarriak sendotuta, gainerako hizkuntzetan ere baliagarriak diren hainbat alderdi lantzen dituzte.

Ulermen eta Adierazpen tailerra:

Ikasleak bere ikasketa prozesuan autonomiaz aurrera egiteko, ahozko nahiz idatzizko ulermen eta adierazpen estrategiak eskaintzea eta aplikatzea helburu duen tailerra da. Edozein komunikazio egoerari aurre egiteko beharrezko urratsak egiten laguntzen diogu ikasleari.

2.- ARRETA SAIOAK

Tutoretza arreta:

Tutoreek tarte hau izango dute gurasoei eta ikasleei arreta eskaintzeko. Ikaslearen ikas prozesuaren jarraipena egin eta hobekuntzak txertatzeko, gurasoen, ikasleen eta ikastolaren arteko elkarlana sustatzea du helburu.

Orientazio arreta:

Orientatzaileak tarte hau izango du gurasoei eta ikasleei arreta eskaintzeko. Ikasleek beren ibilbidean zehar dituzten zalantzak argitzea eta behar akademikoen eta bokazionalen gaineko aholkularitza eskaintzea du helburu.

3.- IKASLEEN EKINTZAILETASUNA BULTZATZEKO TALDEAK

Ikasleak interesetatik abiatuta, hiru talde jarri ditugu aurten martxan arratsaldeko tarteetan. Ikasleek beren borondatez hartzen dute parte talde horietan, gizartearen duten ekintzailetasuna eta parte-hartzea sustatu asmoz.

Eskuttun Taldea:

Ikastola komunitatean euskararen erabilera sendotzea eta ikastolak antolatzen dituen ekitaldi eta ospakizun guztietan euskararen presentzia ziurtatzea helburu duen taldea da. Horretarako hainbat ekintzetan parte hartu eta kanpaina ugari antolatzen dituzte ikasleek.

AusK Taldea:

Ikasle talde honek Euskal Herriko gizarte eta politika gaiak aztertu eta haien gaineko hausnarketa egitea du helburu. Ikastolako komunitatea kontzientziatzeko eta sensibilizatze hainbat ekintza eta kanpaina antolatzen dituzte.

Talde Berdea:

Ikasle talde honek ingurumenaren eta iraunkortasunaren gaineko hausnarketa egitea eta ikastolako komunitatea sensibilizatzea du helburu. Horretarako, hainbat lanketa eta proposamen egiten dituzte, eta horiek dagozkien erabaki organoetara eramane.

4.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Ikasturte hasieran egindako eskaintzaren eta ondorengo izen-emateen arabera, ikasleak aisialdian, zaletasun eta trebetasun ezberdinak garatzeko hainbat ekintza antolatu ditugu arratsaldetan, ikasturtero moduan.



Zuekin gehiago partekatzera goaz

Denok gara kontziente komunikazioak gero eta garrantzia handiagoa duela.

Komunikazioaren gizartean bizi gara. Baina zer da komunikazioa? Informazio transmisioa da, eta askotan ohartzen ez garen arren, dena da komunikazioa, denak komunikatzen du: argazki batek, hitz batek, txosten batek, webguneak, sareek, antolatzen diren ekimenek...

Latinezko *communis* hitzetik dator komunikazioa, euskaraz **partekatua** esan nahi duena. Haurtzaro Ikastolak apustua egin du ikasturte honetan komunikazioa indartzeko, helburu horrekin: hau da, komunitatearekin eta herriarekin gero eta (informazio-komunikazio) gehiago partekatu asmoz.

Gardentasunez, eta modu parte-hartzailean, gure kooperatibaizaeraren filosofiari jarraituz. Komunitate sentimendua ere areagotu nahi guke. Azken finean, denok baikara Haurtzaro Ikastola izena duen proiektu honen parte, ezta?

Nola indartu komunikazioa?

Hasteko, Haurtzaro Ikastolak komunikazio arduradun postua sortu du, jardunaldi erdiz. Postu horretarako Nagore Vega kontratatu du: ikasle ohia, ikasketaz kazetaria, eta urteak daramatza komunikazioan lanean, bereziki, Interneti eta sareei begira. Alboan izango du Batuta enpresako Arkaitz Barriola, diseinuan eta irudian sakontzeko.

Atzean sekulako babes taldea dute, beraiekin batera Komunikazio Taldean lanean ariko diren honako kideekin (eta ardurekin) osatua:

- Prentsa eta irratia: Jaione Ugaldebere.
- Sare sozialak: Lide Martiarena.
- Webgunea: Ariane Retegi.
- Txinpart aldizkaria: Elias Arizmendi, Mariaje Frutos eta Agurtzane Zubizarreta.
- Argazkitegia: Patxi Lizarraga eta Itxaso Goikoetxea.
- Matrikulazio Taldea: Oihana Irastorza, Sohalge Arbelaitz, Xuxuna Juanes eta Lupe Mendigutxia.

Komunikazio Taldearen zeregina da ikastolako gai guztiak ikuspegi estrategikoarekin kudeatzea eta lantzea. Haien lana izango da gure proiektuaren irudia, marka, mezua, baloreak... behar bezala zaintzea behar den tokian. Beti ere modu artisaun, kariñoz.

Irudi korporatiboaren zaintzaile izango dira:

- Ikastolaren posizionamendua eta erreputazioa zainduko dituzte.
- Markaren erabilera egokia ziurtatuko dute.
- Ikastolaren baloreak transmitituko dituzte.
- Komunikazio osoaren jarraipena egingo dute, aipatu helburuak lortzen saiatzeko.
- Harreman publikoak zainduko dituzte: bilerak prestatzen lagundu, gurasoentzat tailerrak antolatzen lagundu, prentsarekiko harremanak zaindu.
- Edukiak sortu eta koordinatu:
 - Webgune berria sortu eta eguneratu: dokumentu estatikoak, agenda, albisteak, multimedia (argazkiak, bideoak, audioak), blogak gainbegiratu.
 - Sare sozialak elikatu: Facebook, Twitter, eta Youtube, momentuz.
 - Txinpart aldizkariko edukiak sortu eta koordinatu.
 - Buletina idatzi.
 - Ikastolak sortutako materialez arduratu: esku-orriak, kartelak, panelak, txartelak...
- Publizitatea eta kanpainak:
 - Matrikulazio-kanpaina diseinatu eta exekutatu.
 - Iragarki-piezen edukiak eta hedabideak zehaztu.
- Ekimenak antolatu.
- Eta aurreko helburu horietara guztietara egokituko den iruditegi berria osatu, webgune berriarekin batera.

Lau erpineko erronboa

Ezin dugu ahaztu, gainera, lau erpineko erronbo baten parte dela Haurtzaro Ikastola: Orereta Ikastola dugu bigarren erpinean, elkarrekin sortutako Oiertzo Batxilergo Ikastola proiektua hirugarrenean, eta laugarren erpina den Oiertzungo Udal Ikastola Partzuergoa (OUIP) ere ezin ahaztu. Oiertzungo Udalarekin batera sortutakoa, 0-2 urteko ikasleak bertan daude. Beraz, Oitk 18 urtera





arteko proiektu handiago baten parte gara. 0-18 urte tartean gure txikiak eta gazteak hezteko ardura dugu. Bizitzarako, gurasoekin batera, prestatzeko, herriari bestelako ekarpenak egiteari utzi gabe (gure programak, sortutako materialak...). Eta hori guztia komunikatu behar dugu, zuekin partekatu.

Orereta Ikastola dugu aitzindaria. Komunikazioan benetako apustua egin du ia jardunaldi osoz komunikazioan aditu Leire Agirrezabala oiartzuarra kontratatuz. Webgune berria jarri du martxan, sareak astintzen ditu, euskarri ezberdinak lantzen ari dira...

Hautzarok ezin du atzean geratu. Orereta Ikastolaren eredu hartu, osatu eta elkarlanean aritzea da asmoa, gizarteari ekarpenak egiten jarraitzeko.

Bizitzarako Hezkuntza, komunikazioaren bidez ere

Hautzaro Ikastola 1967an sortu zen herri ekimenari esker. Bitarte luze horretan, guraso, langile, oiartzuar laguntzaile eta ikasle askoren lana eta parte-hartzea izan da ikastolaren benetako bultzatzaile eta eragileak. Gaur egun herri onurako irakaskuntza kooperatiba bateratzailea gara, eta **Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarte**ko partaidea.

Haur eta gazte oiartzuarrak pertsona gisara hezten laguntzen dugu, beren osotasunean, euskalduntasunean oinarrituz eta beste kulturak errespetatuz, naturarekiko adeitasuna sendotuz. Munduari begiratuko dieten ikasle euskaldunak, arduratsuak eta kritikoak formatzen ditugu.

Gure baloreetan oinarritutako komunikazioa landuz, horixe egiten jarraitu nahi dugu, baina ez soilik ikasleekin, baita langileekin, irakasleekin, gurasoekin, komunitateko kideekin, eta zergatik ez, gainontzeko herritarrekin ere. Informazioa partekatuz, komunikazioa landuz, denok egongo baikara prestatuagoa bizitzari aurre egiteko. Eta ez ahaztu Hautzaron **Bizitzarako Hezkuntza** eskaintzen dugula, arlo guztietan.

ZAINDU KOMUNIKAZIOA!



"Eta nolakoa izango da guretzat etorkizuna, haurrei eskatuz gero geuk egiten ez duguna"

Aitor Sarrigi,
2017ko Bertsoleki Txapelketa Nagusie

Hezkuntza Eskolaren Talde Baga



Zuzendaritza talde berria

“Ziur denon artean, kooperazioan, dauzkagun helburuak lortzetik hurbilago egongo garela”

Dagoeneko jakingo duzue, Hautzaro Ikastolaren zuzendaritza taldea 2019-20 ikasturteari begira eraberritu egin dugu. Aritz Gonzalez zuzendari beraren inguruan Ikasketa Burutza osatuz klustroko hiru irakasle hartu diete lekukoa aurreko bi ikasturteetan zehar jardun dutenei: Haur Hezkuntzan, Itziar Muguruzak; Lehen Hezkuntzan, Koro Uriak, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Ramon Gorrotxategik. Esan behar dugu ere, zuzendaritza ekipoa kudeaketa eta pedagogia lanaren koordinatzaileen taldea ere eraberritu dugula, eta hurrengo kideak izango dituela aurtengo ikasturte honetan: Izaskun Sistiaga, Beñat Mendizabal, Xabi Salaberria, Joxan Arruabarrena, Leire Lekuona eta Argiñe Oiarbide.

Ikasketaburu berriei eman diegu hitza eta honakoak azaldu dizkigute:

“Lehen lehenik, adierazi behar dugu esker hitzak besterik ez ditugula lan honetan aurretik jardun izan duten guztiei. Hautzaro Ikastola denon artean (ikasle, guraso, irakasle, gainerako langile...) osatzen dugun Heziketa Komunitatea izan da beti, eta komunitate izate horren barnean gertatzen dira funtzionamendu eta egitura mailako aldaketa guztiak ere. Mila esker bihotzez aurreko urteetan Ikasketa Burutza eta koordinatzaile lanetan jardun duzuen guztiei, eta jakin ezazue zuen esperientziaren eta orientabideen ildotik jarraituko dugula martxan jarri dituzuen egitasmoak burutzen. Bestalde, argi dugu Hautzaro Ikastola partaidea guztion ekarpenek hezurmamitzen dutela eta zuzendaritzaren eginkizun nagusia elkarlan horri, ikastola osoari, koherentzia orokorra eta partekatua ematea eta hori kudeatzen ahalegin guztiak jartzea dela. Ziur denon artean, kooperazioan, dauzkagun helburuak lortzetik hurbilago egongo garela”.

Hau izan da zabaldu diguten hasierako mezua, baita guztion arteko elkarlanerako gonbitea ere. Zortetik handiena desio diegu geuk ere: Ongi etorri eta animo denei!



Zia eta Boga, heziketan ere

Txalupa barruan sartu naiz, eseri naiz tostan. Balantzaka hasi da. Lasai! Geldi! Noizbait geratuko dela badakit eta! Erne! Beste norbait eseri da aldamenean. Berriz ere balantzaka! Beste bat, beste bat eta bestea... Bete da azkenean!

Balantza ez da geratzen, ordea! Alboan, norbera, bere kasa, nahi duena egiten ari da, zorabioa, goragalea datorkit! Nola edo hala hitz egitea lortu dut. Zorabiatzen ari naizela esan eta begira gelditu zaizkit, balantza indargabetzen ari da, zorabioa arintzen. Ideia bat datorkit burura: aurrez adostu eta elkarrekin arituz gero, txalupa orekan dugu! Egin dezagun bada!

Arrauna estropuaz toletera lotu dugu. Ababorrekoek, istriborrekoek, hankekoek, proelek... guztiok lotu dugu. Arraunean hasi: batzuk zia, besteok boga. Txalupa bueltaka hasi da, gero eta azkarrago gainera. Zurrumbilo batean gabiltza, zorabioa berriz ere, goragalea... zorabioaren aurkakoak hartu izan banitu bederen!

Halako batean, bi hankekoak, istriborrekoa zein ababorrekoa, hizketan ikusi ditut. Zerbait adostu dute. Biak altxa eta guri zuzentzen zaizkigu: "Hemendik aurrera, noiz eta nola arraun egin adostuko dugu. Gure atzealdean zaudeten guztiok, ikusten gaitzuenenez, guk arraun egiten dugun momentu berean egingo duzue arraun!". "Ados", diogu.

Momentu berean arraun eginez, txalupak bira emateari utzi dio eta aurrera doa. Elkarrekin aritu behar dugunaren kontzientzia hartu dugu, lanean koherentziaz ari gara eta emaitza ona da. Pozik, gustura, harro gaude, ongi sentitu gara. Oreak lortu dugu ontziaren barruan.

Olatua dator, ordea. Itsasoa mugitua omen, gutako bat altxa, lema hartu du eta hamarrekoa egitea eskatu digu, lanerako kultura gureganatua dugun horretan, elkarrekin, lankidetzan, erantzun diogu eta ontziak indarrez burua altxa eta kanpoko olatua gainditu du.



Iluntzen hasi da, nora jo? Iritziak saretu eta erabakia hartu dugu. Erabaki dugun itsasargira begira jarri dugu txaluparen iparrorratza. Orduro, tostaz aldatu gara, behin eta berriro, tokian nekatu aurretik toki berria hartu dugu. Etengabe aldatuz, lema, hankeko, proel, istribor, ababor... postu guztietan aritu gara, lankidetzan.

Ohartu gabe, inklusioa, errespetua, feminismoa, aukera berdintasuna, kooperazioa, kritikotasuna, ekintzailetasuna landu ditugu... Zeinen zerrenda luzea!

Heziketa itsaso handi batean dabilen txalupa delako; kontzientziaz eta koherentziaz lankidetzan trebatuz jarraitu nahi dugulako; ikastolako langileok, aurtan, beste behin ere, Albalako ontzietan talde lanerako kultura aritu gara arraunean. Zorabiorik gabe iraun dezagun!





Gurasoen Formazio Plana ✿ 2019-2021

Urmendi eta Haurtzaroko tutoreak

Bizikidetza eta Tratu Onak taldearen artean 2019-2021 ikasturteetarako gurasoen Formazio Plana zehaztu dute. 2018-19 ikasturtean, Tratu Onak guraso taldeak pasatako galdetegiaren emaitzak kontuan harturik bideratu dituzte hitzaldi hauek.

Haurtzaro Ikastolak Bizikidetza Eguna ospatu zuen arratsalde horretan (irailaren 30ean) eman genion planari hasiera, familiek eta ikastolak elkarrekin bat eginez. Irailetik abendura bitarte Alvaro Beñaran, Lurdes Otermin, Alaitz Aizpuru, Arkaitz Larrekin, Josu Arotzena eta Tamara Yaoske Sastrenen hitzaldiak entzuteko aukera izan dugu.

Hemendik aurrera, urtariletik martxora, beste hiru saio izango dira:

- Urtarrila: **GURASOEN GARAPENA** (bideoaren aurkezpena).
- Otsaila: **DROGOMENPEKOTASUNA EDO ADIKZIOAK? AGIPAD elkarreteren eskutik.**
- Martxoaren 31an: **Zer da guraso gisa gure haurraren garapenean akonpainatzea? Adina? Alvaro Beñaranen eskutik (bigarren saioa).**

Mila esker parte hartzetik eta animatu hurrengo hitzaldietara.

GURASOEN FORMAZIOA
Akonpainamendua XXI. mendean

Internet:
gure seme-alabak non dabiltzan ba al dakigu?

AZAROAK 20, 17:00etan
Jantokiko goiko solairuan

Haurtzaro Ikastola
haurtzaroko ikastetxea

200 pertsonentzat tokia esanguratsua.
Ahalberako itzulpen zuzentzaia.

GURASOEN FORMAZIOA
Akonpainamendua XXI. mendean

LOURDES OTERMIN

Zer da, guraso gisa, gure seme-alaba nerabeak akonpainatzea?
(12-16urte)

AZAROAK 5, 17:00etan
Jantokiko goiko solairuan

Haurtzaro Ikastola
haurtzaroko ikastetxea





Feminismoan formatuz: HEZITZAILEON BARRENETATIK, HAURREN HEZIKETARA



Gaur, oraindik, bizitzaren lehen etapak garapen pertsonalean eta sozialean duen garrantziari muzin egiten zaio. Urmendi Haur Eskolako hezitzaileok, ordea, argi dugu haurrek beren lehen urteetan garatzen dituztela bizitzan oinarritzekoak diren gaitasunak, gizarteratzeko oinarritzekoak diren balioak eta ezagutzak. Inguruan duten guztia xurgatzen duten belakiak, beren txikitasunean handi dira gure haur hauek, eta gu, hezitzaileok, gara bide honetan haien lagun, bidelagun. Bidelagun eta eredu. Eta zein eredu izan nahi dugu? Zein heziketa mota eskaini nahi diegu?

Galdera hauei erantzuna bilatzeko asmoz, Urmendiko hezitzaileok eta sukaldariok formazio feminista batean murgildu gara, talde hausnarketa sakona martxan jarritz. Oiarzungo Udalarari, bertako berdintasun teknikariari eta, nola ez, saio hauetan gure formatzaile eta bidelagun izan den Eider Goiburu adituari eskerrak emateko tarte ere hartu nahi dugu lerro hauetan. Balioan jarri behar da Oiarzungo kasuan, instituzio publiko batetik, halako espazioak eta aukerak sortzeko egin den apustua. Honek argi erakusten digu gauzak apurka-apurka aldatzen ari direla eremu honetan ere.

Garai berrien aurrean gaude, azken hamarkadetan gizartea eraldatu egin da, eta eraldaketa honetan feminismoa indartsu heldu zaigu gurera, erronkaz beteriko abanikoa zabalduz. Bizitza duinak eta askeak garatzeko beharraz hitz egiten digu, bizitzak erdigunean dituen eta emakume eta gizonen berdintasunean oinarrituko den etorkizuna marrazten diguna. Eta guk, helduok dugu etorkizun hori eraikitze bidean gure txikiei merezi eta behar duten heziketa eskaintzeko ardura. Azken urteetan feminismoak hausnarketa asko sorrarazi dizkigu, barneraturiko eskemak kolokan jarritz eta gure buruetan "klik" bat eraginez. Mundua beste era batekoa izan daitekeenaren esperantza ireki digu, indarkeriarik gabekoa eta askea, nork nahi duena izan eta sentitzeko askatasunean eta errespetuan bizitzeko mundu bat eskaini digu.

Esan bezala, gauzak aldatu direla argi dugu, baina benetan pertsonak askatasunez hezteko adina? Estrukturala den indarkeria matxistak egunero erakusten digu ezetz. Gure bizitzako esparru orotan ondo baino hobeto erroturik dagoen indarkeria honek babes sozial handia du, isilik eta ezkutuan mantentzeko ongi eraikitako ideologia matxista batek gurutzatzen gaitu pertsona, harreman, lan edota izate oro. Azalean aldatu direla esango genuke guk, baina honetaz jabetzea ez da erraza izan.

Gure kasuan, Urmendiko hezitzaileon kasuan, formazio feminista jasotzen ari ginela iritsi zaigu "klik" sakonago bat. Arrazionaltasunetik erraierara egin baitugu salto, kontzeptuetatik egunerokotasunera, eta hor dago gakoa. Erraieratik jokatzeko dugu, ikasitakoa azalean, haragitan baitaramagu eta pentsatze hutsak, ezagutzak berak ez ditu gure ekintzak, gure barrenak zertan aldatu. Adibide garbi batek argitu zigun errealitate hau, guraso ere bagaren heinean: gure semeak 10 urterekin soinekoa jantzita irteten nahiko balu kalera edota eskolara, hau errespetatzeaz gain, haren bidelagun izango ginateke? Babesteko beharrak, soinekoa etxean bai, baina kalera ez ateratzeko erabakia hartzea eramango gintuzke? Aita zaretenei, zuen semearekin batera soinekoa jantzirik ateratzeko hautua egitera iritsiko zinateke? Gizarteak jarriko dizkion muga, etiketa, burla eta indarkeria guztiei aurre egiteko prest ditugu barrenak? Hala ideietan egin dugu aldaketa soilik? Berrirori, galderak. Kolokan jartzen gaituzten galderak, barrenak nahasten dizkigutenak.

Identitateak jaiotzez badatoz eta lehen urteetan inguruak eskaintzen dizkigun estimulu eta ereduetatik osatzen badira, hemen dugu guk, hezitzaile, familia zein gizarte orok gauzak aldatzeko izugarritzeko aukera. Ezin dugu haurren identitatea urte luzeetan zehar inposatu diren genero rol antagonikoetara mugatu: gizon indartsu, sendo, kirolari, agintzaile eta emoziorik gabeak, eta bestetik, emakume fin, lirain, garbi, txintxo eta esanekoak. Arropa, jolas, jostailu eta haiengan ditugun espektatibak ezberdinak dira, ia beti, neska hala mutila badugu aurrean. Eta, berrirori, galderak: Nork dio emakume otzan, zintzo eta polita dela emakume izatearen eredu? Nork gizentasuna indarkeria, hontasuna eta oldartsua izatea dela? Zergatik ez ireki abanikoa eta dikotomia horiek apurtu? Neska eta mutilak baino, pertsonak ikusten badiugu gure aurrean?



Tresnak behar ditugu, gure jarrera eta heziketa moldeak kolokan jarri eta hurrei esperientzia berriak eskaintzeko, orain artekoa hankaz gora jartzeko; pentsatze hutsetik barrenak eraldatzeko momentua da. Ez geuregatik soilik, baita gure hurrek, beren garapena libreki bizi eta askatasun osoz erabaki eta bizitzeko aukera izan dezaten. Horregatik, Urmendiko hezitzaileok eta sukaldariok formazio feminista jaso eta hasi berri dugun bide honetan aurrera jarraitzeko hautua egin dugu; egunerokotasunean ditugun jarrerak eta hizkuntza bera kolokan jarri eta txikitasun horretan aldaketa handiak egiten hastekoa. Gure etorkizuneko txikiei merezi duten heziketa feminismoak argitzen digun errespetu eta askatasunean emateko, behar diren hausnarketan eta barrenen lanketa egitera goaz. Pertsonak hezteko dugu helburu, nork bere identitate, orientazio, nahietatik, beharretatik eta gustuetatik komunitate bizigarria, osasuntsua eta zoriontsua eraikitzea, hain zuzen.

Shantala masaje tailerra Urmendin

Shantala masajea Indiatik datorren antzinako teknika bat da. Frederik Leboyer, mediku eta kazetari frantsesak 1950. hamarkadan ekarri zuen mendebaldeko herrietara.

Shantalak haurraren estimulazioan eragina du, eta garapen neurologiko eta psikomotorrean ere laguntzen du.

Haurraren eta helduaren arteko harremana indartzen eta segurtasuna areagotzen laguntzeko, aukera ezin hobea da.

Shantala masajeak 3 momentu ditu:

- 1) **YOGA PASEAK.** Arroparekin luzaketa ezberdinak.
- 2) **SHANTALA MASAJEA.** Arroparik gabe. Haurrari olio igurtzen zaio gorputz atal ezberdinetan (hanketan, besoetan, sorbaldan, sabelean).
- 3) **BAINUA.** Amaren sabela irudikatzen duen ontzi zehatz bat erabiltzen da.



0-10 hilabete bitarteko hurrei ematea gomendatzen da, astean 4-5 alditan eta 20-25 minutu inguru. Ordutegi aproposena, arratsalde-gau parte (18:00-20:00) litzateke. Masajea gurasoek ematea gomendatzen da, baina, batez ere, haurrarekin denbora gutxien pasatzen duen horrek.

Urmendi Haur Eskolan, aurren ere, bertako haur eta familiekin Shantala masajearen gaineko tailerrak egiteko aukera izan dugu. Tailer hauetan giro goxoa sortzen da, atsegina eta emozio ezberdinak bizitzen dira; baita urduritasuna ere. Une polita izaten da haurrak hobeto ezagutzeko, baita norberak bere burua ere. Merezi duen esperientzia!





Oiartzo Ikastola: etorkizuneko jendartearen eta pertsonen etorkizunerako bidelagun

Orereta Ikastolarekin batera orain hogeit hamar urte abian jarri genuen Oiartzo Batxilergo Ikastolaren helburu behinena, aipatu bi ikastolon proiektu pedagogikoa eta eskaintza 0-18 urte artekoa izatea bermatzeaz gain, batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa eskaintzea da. Orereta eta Haurtzaro ikastolak bezalaxe, Oiartzo re Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da, kalitatezko euskarazko hezkuntzaren berme.


Etorkizuneko jendarte eta pertsona euskaldunak prestatzeko bidean, orientazio pertsonalizatua da Oiartzo Ikastolaren lan-ildo nagusietako bat. Izan ere, jendarte eta pertsona euskaldunen etorkizunerako bidelagun izan nahi du.

Oiartzo Ikastolak ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua eskaintzeko aukera du eta hala egiten du; bereziki, etorkizunean hartuko dituzten erabaki garrantzitsuetarako laguntza eskainiz, bidelagun izanez.

Asmo horretan, iaztik, ikasturte osoan zehar, adar ezberdinetako ikasketak egiten ari diren ikasle ohien bitartekari izaten dituzte 2. mailako ikasleek; lanbide heziketan zein unibertsitate publikoan edota pribatuan dabilzan ikasle ohienak.

Mahai-inguru moduan garatzen ditugu saioak, ordu pare bat irauten dute, eta interesa duten ikasleak joaten dira. Moderatzaile batek gidatuta, ikasle ohi guztiei aukeratu zutena zergatik hautatu zuten, beren helburuak betetzen ari diren eta ikasketak bukatu osteko etorkizuna nola ikusten duten galdetzen diegu. Hori eginda, Oiartzoko ikasleek hartzen dute hitza, ikasketei beraiei hertsiki lotutako gaiez zein haien ingurukoez izan ditzaketen zalantzak argitzeko, ezinezonak baretzeko zein erabakiak tinkotzeko.

Ekimena interesgarria eta lagungarria dela ondorioztatu denez, aurtur ere etorriko dira ikasle ohiak Oiartzo Ikastolara. Iaz lau saio egin bagenituen ere, aurtur bost izango dira, ikasketa adarre zehatzago eta hobe erantzuteko asmoz. Osasun zientziei eta zientziei, ingeniariari, enpresa eta zuzenbideari, giza eta gizarte zientziei, eta hezkuntza, hizkuntza eta kirol munduari lotutako saioak izango dira aurtengoak.





Azoka solidarioa

Gu DBH1eko ikasleak gara. Aurreko ikasturtean, gure proiektuetako bat azoka solidario bat antolatzea izan zen. Hori zela eta, **10.301 Elkartasun Keinu** taldekoei esku bat botatzea erabaki genuen, gai hark jakin-min izugarria sortu baitzigun.

Azoka solidarioaz gain, beste zeregin bat ere suertatu zitzaigun: **Zaporeak** ekimenarekin bat egin eta janari bilketa bat antolatzea. Ikastolan informazioa zabaldu ahal izateko, bideo labor bat grabatu genuen. Hori egin ondoren, jolas garairi gelaz gela joaten ginen ekarritako janaria biltzera eta ikasleak motibatzen. Denbora dezente igaro genuen gai honekin, baina, azkenean, bere fruitua eman zuen: makina bat kilo lortu genituen Zaporeak taldeari laguntzeko. Beraz, zuek ere gonbidatuak zaudete horrelako ekimen batean parte hartu eta zuen onena emateko, izugarrizko esperientzia baita. Animatu!



Oiartzundik Lesbosera eta buelta

Lesbosen nago, bigarren eguna da. Non sartu naiz? Zer ari nintzen pentsatzen 10 egun lehenago jaso nuen gonbidapenari baietza eman nionean? 12 ordu lanean, 1.700 anoa (errazio) prestatu ditugu egunero. Hirugarren eguna ez da hobe: janaria prestatzeaz gain, Euskal Herritik elikagaiez beteta datorren trailerra iristear da, urduri gaude, erantzungo al diogu? Heldu da! Eta berarekin batera, aduanetako polizia, zakur eta guzti. Janari guztia aterarazi digute. Eguzkitan pakete guztiak ireki -zokoltea barne- eta lau ordutan zakurra aurrera eta atzera ibili da. Amorrua, ezintasuna, inpotentzia... Oztupo guztien gainetik aurrera egingo dugula zin egin dugu taldean. Esan eta egin. Atzerapenarekin, baina egin dugu. Egunekei anoak prestatu eta banatu ditugu, baita trailerra hustu eta biltegian txukun antolatu ere. Gogoan dut egun hura eta gogoan zaituztet ondoan izan zintuztedanak.

Eta hori guztia egiteko energia errefuxiatuen egoerak ematen dizu. Errefuxiatuen egoerak eta trailerrean zure herriko ikasleek jasotako elikagaiak daudela jakiteak; zure herrikoak, Urretxu ikastolakoak eta euskal herritar askok doan eman eta jasotakoak.

Halaxe egin ditugu 3 aste eta erdi: 150 kilo babarrun, arroz, pasta, dilista, garbantzu... prestatu ditugu, guztiak berduraz gozatuak; batzuetan oilaskoz, bestetan arkumez edo haragiz lagunduak; fruta eta pita ogi banarekin.

Errazio guztiak banakako ontzietan bildu eta irribarre zabalenaz eskura eman dizkiegu. "Tasákor" esaten digute, edo "Thank You". Parsia ikasten hasia naiz, zenbakiak: yek, du, ze, chahár... Bitartean, errefuxiatu afganiar, siriar, irandarren... umeek "bi, hiru, bi eta bi, bat, bi eta hiru..." errazio eskatu dizkidate. Zeinen azkar ikasten duten. Beharra bezalakorik ez da horretarako.

Beharra? Guztia. Errefuxiatuen bizi baldintzak ez dira inolaz ere onargarriak. Horiek ezagutu, eta batez ere, bertatik bertara bitutako bazenituzte, europar izateaz latsa sentituko zenukete zuek ere.

Kartzela militarra izandako Moria eremuan pilatuta bizi dira, edukiera laukoiztuta eta kanpoan, ezerezean, denda zitrintetan pilatzen dira. Urte luze bat ematen dute bertan asiloa eskatzeko lehen entrebistarako zain, ezetza jasoko dutela jakitun. Eta hirugarren ezetza jasotzerakoan, deportazioa. Berriz ere atzera.

Lanik egiteko baimenik ez, gidatzeko baimenik ez; beti ilaran zain, eguzkipean, 40 gradutan. Jolaserako goizalde eta gualdea, errepidean. 80 lagunentzako komun bat, 120 lagunentzako dutxa bat; beti ilaran zain, ur-zikinen usaina, han eta hemen. Zer da hori? Idatzi Interneten: "Moria+Lesbos" eta begiratu irudiak.

Abeletxetan pilatzen diren txitak datozkit burura.

Zenbat sufritzen dudan errefuxiatuekin akordatzeari! Beren egoera gogorra gogoan, zenbat malko isuri ditudan! Elkar ulertzeko hizkuntza muga izanagatik (ingelesaz deus ere ez dakit), nola komunikatu garen! Beren bihotzak nola ireki dizkiguten! Oraintxe bertan haien ondora itzuliko nintzateke. Berehala.

Baina argi dut benetako heroiak ez garelako bertara joan garen boluntarioak. **Benetako heroiak, hemen, Euskal Herrian, Oiartzunen, errefuxiatuak duintasunez elikatzeko dirua eta janaria jaso duzuenak izan zarete.** Hala adierazi nuen idatzita anoak banatzeko erabiltzen den oholean: "Mila esker esperientzia honetan parte hartzeko aukera emateagatik. Muxuak".

Bejondeizula 10301!

Josu Arotzena, DBHko irakaslea





Eraikuntza lanetan

Tenperekin sortze lanetan



Naturarekin



Hondarrarekin esperimentazioa

HAUR HEZKUNTZA 3

Udazkenaz gozatzen

Material
naturalarekin
esperimentatzeko
eta gozatzeko
aukera ere ematen
digu udazkenak



Horma-irudia sortu
udazken koloreak
erabiliz

Garaiko fruitua
sailkatu



Artasoroan
artaburuak bildu

Artoa aletu



Udazken koloretan

UDAZKEN GOZO ETA EURITSU HONETAN UNE ASKO APROBETXATU DITUGU URTARO HONI DAGOZKION EKINTZAK EGITEKO. OIARTZUNGO BASERRIETATIK EKARRITAKO SAGARREKIN KONPOTA EGIN DUGU, BARATZETIK HARTUTAKO AZA MOREAREKIN ESPERIMENTUAK EGIN DITUGU, GURE BASO KOLORETSUA ERE OSATU DUGU. ETA, NOSKI! BARATZA ERE PRESTATU DUGU, KOOPERATIBAN EROSITAKO NEGUKO BARAZKIAK LANDATUZ.






HAUR HEZKUNTZA 5

Udazkena



UDAZKENA DELA ETA, 5 URTEKOAK GAZTAINA BILA JOAN GINEN URKABERA. HORREZ GAIN, EGILUZE SAGARDOTEGIAN SAGARDOA NOLA EGITEN DEN IKUSI GENUEN ETA, BUKAERAN, ANTTONEK MUZTIOA DASTATZEKO AUKERA ESKAINI ZIGUN. AZKENIK, GURASOEI ETA IKASLEEI ESKER PERRETXXIKO ERAKUSKETA BAT ANTOLATU GENUEN.

GURASO PILA ETORRI DA GURE ERAKUSKETA IKUSTERA!



Dinosaurioak

LH 1-EKO / KASLEAK GARA GU
 DINOSAUROEN GARAIA-LANTZEN-ARI-GARA
 ETA-HIRU-MAKI-ETA-POLIT-EGIN-DITUGU
 TALDEKA-MAKETARIKO-CAUZAK-SORTU-DITUGU.

DINOSAUROAK ETXETIK EKARRI-DITUGU-ETA
 MAKI-ETAK-EGIN-DITUGU-GUSTATZEN
 AL-ZAIZKIZ ZUE? GURI-ASKO-GUSTATZEN
 ZAIZKIGU.

ETA-ASKO-IKASTEN-ARI-GARA!





LEHEN HEZKUNTZA 2

Ni, gu, Oiartzun eta Erdi Aroa



Oiartzun herriaren ikerketarekin jarraituz, irteera bat burutu dugu herriko eraikinik zaharrenak ikusteko: Garbuno eta Makutxo baserriak, Iturriozko dorretxea... Horrez gain, Joxe Mari Iturriotzek Beloaga gazteluari buruzko kontuak eta herriko bitxikeriak azaldu dizkigu, zeinen interesgarria! Ba al dakizue Ugarteko erroten dorretxea zegoela? Eta hau Iturriozko dorretxea baino zaharragoa zela?

Ikerketarekin bukatzeko eta Oiartzun herriaren sorrerarekin jarraituz, Erdi Aroa joan gara lehengo urtean sortutako denbora makinan...

Laster arte!

Kaixo lagunok!


Lehen hilabete hauetan haurtzaroa, jaio ginen eguna, familia, norbere ezaugarriak eta lehen urteetako kontuak gogoratu ditugu, baita Urmendi Partzuergora bisita egin ere! Zeinen politak garen txikitan...

Gure jaioterria eta bizilekua aztertzen ere ibili gara, izugarri gustura. Gainera, gure bizilekua den Oiartzun herriari buruz ere asko ikertu eta ikasi dugu. Ba al dakizue orain garai batean baino askoz jende gehiago bizi garela Oiartzunen?

Oiartzungo herritar ospetsuak ere zerrendatu ditugu, eta Maider Zabalegiren bisitaz eta kantuez gozatzeko aukera paregabea izan dugu.



NEGUKO SOLSTIZIOKO OSPAKIZUNAK



San Nikolas Txikia

Abenduaren 6an, San Nikolas eguna ospatzen da. Euskal Herriko hainbat lekutan Oles egiteko ohitura dago, hau da, etxez etxe kantuan ibiltzeko ohitura, etxekoei zorionak emanez eta etxeko guztiei koplak kantatuz. Haurtzaro ikastolako haurrak ere ohitura zahar honi jarraituz kantari ibili dira Oiartzungo Elizalde auzoan zehar.




NEGUKO SOLSTIZIOKO

San Tomas

Ohitura zaharrari jarraituz, abenduaren 21ean ospatu da Haurtzaro Ikastolan San Tomas jaia. Horrekin batera, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan dute haurrek. Garai batean baserri azokaren eguna zen, baserritar asko maizter bizi ziren euren baserrietan, eta aldiro errenta ordaindu behar zioten nagusi edo jabeari. Horretarako epea San Tomas eguneraino luzatzen zen. Egun horretan hirira jaisten ziren errenta ordaintzera eta, bide batez, euren produktuak (barazkiak, kapoiak, oilaskoak...) saldu eta beste batzuk erosten zituzten. Gainera, hirietan bizi zirenek, Gabonetan zehar jango zituzten jakiak erosten zituzten.



OSPAKIZUNAK



NEGUKO SOLSTIZIOKO

Olentzero Eguna

J.M.Satrustegik “Solsticio de invierno” liburuan dioenez, urtero berritzen den naturako indarren errepresentazioa izan zen lehendabizi Olentzero.


Jatorriz, suarekin du erlazio zuzen-zuzena. Enbor baten bitartez irudikatu du herriak. Gabon gauean Euskal Herriko etxe askotan, enbor handi bat jartzen zen sutan, Olentzero subila hain zuzen ere, hori izanik erretzen zena. Subil horrek indar berezia izango du: abereak (ondasun adierazle bezala) eta etxeakoak zainduko ditu hurrengo urte osoan.

Gure Olentzero artzaina da zenbait tokitan, nekazaria beste batzuetan, ikazkina hainbaten ustetan. Azken jentila dela diote batzuek.

Ohitura zaharrei jarraituz ikastolako ikasleak Oiartzungo auzoak alaitu dituzte kantu kantari.



OSPAKIZUNAK



Lehen Hezkuntza 3-4

Hasierako orria	LH3	LH4	MATEMATIKA	LIBURU TXOKOA	Ekarrekin Olatzun-Zuberoa
-----------------	-----	-----	------------	---------------	---------------------------

ZINEMALDIA/ KRISTINA-ENEA

Gaur egun pasa egin dugu LH2 zikloko lagun taldeak.

Golzean Belodromoan izan gara "TXIMINOEN ERRESUMA" ikusten, ikastolako eta beste ikastetxeetako kideekin batera. Pelikularekin gozatu, hunkitu ... gara.

Ondoren Anoetarik abiatu eta Kristina enera jo dugu. Bertan bazkalduu dugu, ondoren, futbolekin ibili gara, txabolak egin, jolasak, zilipundiak ... izan ditugu lagun ikastolara itzultzeko ordurarte.

ARGAZKIAK klik batean.



Haurtzaro ikastola



Haurtzaro ikastola


Bilatu blogean

Harpidetza

Geziei jarraituz gero,
LH3an KLIK egindakoan,
Txanelako eta Gaztelaniako unitateak
aurkituko dituzue.



Unitate bakoitzean, bideoak, jolasak, gurutzegramak, kahoot jolasa, inprimakiak... topatuko dituzue.



Matematikako

Orrian, berriz, eragiketak egiteko hainbat jolasaz gain, kahootak ere badaude.



Ezin ahaztu **LIBURU TXOKOA**: bertan aholkuak eta iruzkinak txertatuta daude.



Diminutos seres vivos


BACTERIAS



En Lengua Castellana se ha abierto un mundo nuevo: el diminuto mundo microscópico, con seres que no se ven a simple vista.

Se cree que fueron los primeros organismos vivos en habitar este planeta y están presentes en nuestra vida cotidiana. Están a tu lado, paseándose por tu piel, zampándose tu bocadillo, revolviendo la basura o en el mismo aire.

Nos referimos a **VIRUS**, **BACTERIAS** y algún tipo de **HONGOS**. Los ojos no llegan a ver algo tan diminuto, ¡tu mente puede imaginarlo! Utilizando nuestro ingenio, hemos creado un ser minúsculo al que le hemos dado vida. Después de investigar hemos presentado nuestra bacteria.



LEHEN HEZKUNTZA 5

Gloria Fuertes



Incomprendida

Diferente

Fuerte ante la
dificultades

Luchadora ante la
adversidad

Grande

Humilde

Generosa

Sencilla

Una
mujer

Con ella hemos
aprendido lo que es la
poesía y la fuerza que
tiene.

Filosofía
de la vida

Diversión

Creatividad

Libertad

Es el espejo de
tu actitud, de tus
emociones y
sentimientos

La poesía te
permite escribir
todo lo que
tienes dentro

La poesía es



¿Qué es poesía?
Poesía eres tú

Gracias Gloria, por lo que
fuiste y por todo lo que nos
has dejado



Itsas hondakinak



LH6ko lehen unitatearen izenburua Mundua aldatzen ikusi dut da eta, bertan, besteak beste, Lurrak, sortu zenetik, izan dituen aldaketak ezagutu ditugu. Kontinenteak mugitzen ari direla ikasi dugu, sumendiek, lurrikarek, failek... urteetan zehar hainbat aldaketa eragin dituztela aztertu dugu, baita ura eta haizeak ere. Baina, azken urteetan, Lurrean ematen ari diren aldaketa handien eragile nagusia gizakia dela ohartu gara.

Gizakiak gure planetan eta, batez ere, itsasoan duen eragina hobeto ikusteko Inma Martin gurasoaren eta AZTIko langilearen bisita izan genuen. Gizakiok gure eguneroko jardunean egiten ditugun hainbat ekintzen ondorioak zein diren azaldu zigun: itsaso eta ozeanoen egoera oso larria da, eta ikusten dugun zaborraren halako bi daude ur azpian ezkutuan. Egoera aldatzeko guk zer egin dezakegun azaldu zigun, gure eguneroko ohitura batzuk aldatzeak zer onura ekartzen dituen. Birziklatzea ezinbestekoa dela ikusi dugu, baina hori ez dela nahikoa,

**GURE KONTSUMOA
MURRIZTU BEHAR DUGU!**



DBH 1

Unibertsoa ikertzen

Unibertsoa ikertzen aritu gara DBH 1. mailako Biologia eta Geologia arloko 1. unitate honetan. Horretarako, hainbat aspektu izan ditugu aztergai: unibertsoaren osagaiak, astroen mugimenduak eta mugimendu horiek zein ondorio dituzten guregan, besteak beste. Gainera, aipatutako ikerketan modu egokian murgiltzeko, ikerketa-galderak formulatzean

egin beharreko urratsak ikasi ditugu. Amaitzeko, jasotako ezagutzak baliatuz eta gaiaren alderdi jakinei buruzko galderei erantzunez, emaitza horma-irudi digital batean irudikatu dugu! Hona hemen taldeka egin ditugun bi adibide.

Zer sortu da Big Bang leherketaren ondorioz?

Unibertsoan aurkitzen dugun guztia: Planetak, galaxiak, izarrak, sistemak, asteroidak, kometak, planeta nanoak...

ERROTAZIOA ETA TRANSLAZIOA

Lurraren errotazio mugimenduaren ondorioa eguna eta gaua dira. Translazioaren eta lurraren orbitaren inklinazioaren ondorioa, aldiz, urtaroak dira.

Gorputza eta osasuna

DBH 2. mailako Gorputza eta Osasuna arloan elikaduraren gaineko aspektu desberdinak ezagutzen aritu gara. Aspektu teoriko batzuk, hainbat artikulu eta bakoitzak bere egunerokotasunean daukan dieta aztertuta ditugu. Hemen duzue elikaduraren eta iraunkortasunaren arteko lotura gaitzat hartuta, 2. mailako ikasle batek egin duen hausnarketa eta idazlan interesgarria!

Elikaduraren eta iraunkortasunaren arteko lotura

Munduan arazo ugari dago, baina handienetarikoa bat kutsadura da. Kutsadura akustikoa, klima aldaketa... eta elikagaien kutsadura. Hori saihesteko edo ekiditeko, beharrezkoa da OKM elikagaiak erostea, plastiko gutxiago kontsumitzea, klima aldaketa geldiaraztea... behar beharrezkoa da "klimatarian" gehiago egotea.

Kutsaduraz hitz egiten dugunean, burura datorkigun lehen gauza klima aldaketa da. CO₂-a isurtzen duten industriak, metanoa, kotxeak, plastikoak... Arazo handia da klima aldaketa, eta hainbat faktorek eragiten dute. Horietako bat plastikoa da. Plastikoa kutsadura handia sortzen du. Alde batetik, arazoa konpontzen saiatzen ari garen arren, beste alde batetik, arazoa areagotzen ari gara. Jada supermerkatuetan ikus daitezke plastikoan bilduriko mandarinak, beren azala kenduta. Guk beti aitzakia bera jartzen dugu: "Supermerkatuan jartzen badute zergatik ez dut erosiko? Jada sortu dute, ezin da denboran atzera egin". Baina ez da hala. Ez, ezin da denboran atzera egin, baina aurrera bai. Supermerkatura joan, eta gutariko inork ez badu plastikoaz bilduriko ezer edo ia ezer erosten, azkenean supermerkatuaren jabeak ez du gehiago erosiko, eta horrela klima aldaketari dagokion arazo bat gutxitzea lortuko dugu. Beste arazo larri bat garraioa da. Eta gehiengoek begiratzen ez dugun arren, edukiontzi eta produktu guztietan jartzen du erosten dugunaren jatorria, osagaiak eta beste hainbat balore. Gure ohiturak aldatu beharko genituzke, eta zer erosten dugun begiratu. Honetarako beste aitzakia bat jarri ohi dugu: "Baina oso garestia da!". Hori ere horrela da, baina ez gure prezioa begiratu beharko, gure osasuna baizik. Horretarako, OKM produktuak edo antzekoak erosi behar ditugu, ez delako beharrezkoa adibidez udan laranja erostea, negua izanda fruta honen sasoia.

Artikuluaren hasieran hitz bat aipatu dut: "Klimatarian". Hitzak dioen bezala, klimarekin du lotura. Bizimodu bat da; klimarekin, elikadurarekin eta iraunkortasunarekin lotura duen bizimodu bat. Baina denerako bezala, "klimatarian" egoteko hainbat baldintza bete behar dira:


1. Barazkietatik edo landareetatik datozen produktu gehiago kontsumitu.
2. Sasoian sasoikoa jan. Honek, garraioa gutxitzea eta gaixotasunak ekiditea eragingo du.
3. Jaten dugun haragiaren eta arrainaren jatorriaz eta bizimoduaz informatu.
4. Denbora izan. "Klimatarian" egongo zarela erabaki baino lehen, bizimodu hori eramateko gai izango zaren ala ez pentsatu behar duzu.

"Klimatarian" egotea, gure etorkizuna eraikitzeke eta erabakitzeke modu bat da. Bizimodu iraunkor bat. Elikadura zainduta klima eta iraunkortasuna lotu eta zaintzeko beste modu bat.

Laburbilduz: klima aldaketan hainbat faktorek eragiten dute, eta horietako batzuk elikadura eta garraioa dira. Horiek saihesteko modu bat "klimatarian" egotea da, OKM edo antzeko produktuak kontsumitzea, plastiko gutxiago duten produktuak erostea... Beste gauza asko egin daitezke klima aldaketa ekiditeko, baina gauza txikietatik hastea komeni da, gauza handiak egitera iristeko.

Malen Etxebeste Lekuona





Honako testu hau Balore Etikoen irakasgaiari DBH 3. mailako saio batean egindako hausnarketa da. Klase horretan hiru pertsonen testigantza berri jaso genuen: Tony Melendez besorik gabe jaioetako musikazalerena; Jane Goodall haurtzarotik zientzialaria izatearekin amets egindako emakumearena, eta Pablo Pineda Down sindromea duen gaztearena.

Hiru bideo hauetan elementu asko daude agerian, nahiz eta oso desberdinak izan beraien artean. Bertatik atera daitezkeen ideia, pentsamendu eta iritziak oso anitzak eta desberdinak izan daitezke, baina bizipen pertsonal horiek ideia bat dute nagusi aipatzekoa: ez dagoela **mugarik**.

Tony Melendezek **'ezinezko'** hitza existitzen ez dela erakusten digu. Bizitzan zehar eduki dituen hainbat zailtasuni aurre eginez eta bere ametsa errealitate bihurtuz edozer gauza egin daitekeela ziurtatzen digu. Bere familiak eragin handia eduki duela ere aipatu beharra dugu, garrantzitsua baita inguruaren sendotasuna eta harremanek ematen duten boterea.


Aldiz, Jane Goodallek, emakumea izaki, zientziaren mundura sar gaitzekela frogatu digu. Kontuan hartu duela 50-60 urteetako egoera: zientziaren esparrua gizonek menperatzen zuten, eta emakumeok eremu honetatik at gelditzen ginen. Baina ez soilik hemen, baita beste hainbat lekuetan ere, gizartean gizonen papera gailendu delako, batik bat. Hortaz, emakumearen boterearen eta berdintasunaren aldera ematen du pausoa.

Azkenik, Pablo Pinedak ere hainbat arazoei aurre egin diela egiaztatzen digu. Aipatu behar dugu ezgaitasun bat daukala 'Down sindromea' izenekoa. Honek ere, erakusten digu **esfortzuarekin edozer gauza lor daitekeela**. Berak adierazi duenez: "Dena fisiko on bat duten mutilentzako egina dago", baina, argi eta garbi utzi digu hori errealitatea den arren, balio gehiago daudela jokoan.

Gauza asko lortu dira, eta egia da aurrerapen handiak eman direla, baina babesgabetasun egoeran jarraitzen dute pertsona askok. Gizarteak, azkenean, oztopo asko jartzen dizkie pertsonari, eta egoera hauen aurrean gizarteak baztertzen ez dituenaren irudia eman nahi duen arren, egia da baztertu egiten dituela, 'normaltasun' egoera horretan bizitzen ez direlako. Hori dela eta, pentsatu beharra dugu zein gizarte mota nahi dugun, **ez duelako ezertarako balio hitzen bidez adierazteak, ekintzak kontrakoak baldin badira**. Ni naiz lehenengo aldatu behar dudana. Askotan, eta kulturalki erakutsita, haiek izan dira gure errealitateari ohitu behar izan dutenak, baina guk ez dugu errealitate hori moldatu, batik bat gure ongizateari ateratzen gaituelako; segregazio egoerak eta integrazio egoerak bultzatzen dituzte pertsona hauek gure kulturara egokitzea, eta guk aipatutakoa inposatzea errespeturik gabe.

Aintzane Flamarique Martínez

“Ez du ezertarako balio hitzen bidez adierazteak, ekintzak kontrakoak baldin badira”.



Oiartzungo artxibategia

Oiartzungo Artxibategia. Agiri historikoak bildu, sailkatu eta gordetzen dituen lekua da.

Hautzaro Ikastolako DBH4ko Kultura Klasiko eta Latineko ikasleak gara. Ebaluazio honetan Kultura Klasikoari buruzko hainbat kontu ikasi ditugu eta, horren ondorioz, gure herriko artxibategira egin genuen bisita, udaletxean dagoen Oiartzungo Artxibategira. Agiri historikoak bildu, sailkatu eta gordetzen dituen lekua da. Koro Pascual izan zen gure gidaria, eta artxibategi osoa erakutsi zigun, baita barruan dauden hainbat dokumentu interesgarri ere.

Besteak beste, aipatu zigun Oiartzungo Artxibategia lehen udaletxeko ganbaran zegoela, nahiko egoera kaxkarrean; zenbait dokumentu lurretik barrena zeuden, zaindu gabe. Kontatu zigun XIX. mendean Oiartzungo Artxibategian Serapio Mujika ospetsua aritu zela lanean, eta ordenatzeari ekin ziola. Gero, Koro Pascual lanean hasi zenean artxibategia ordenatu eta Manuel Lekuona Udal Liburutegiko ganbarara pasa zuten, baina 1994-1995ean gaur egun dagoen tokira ekarri zuten, udaletxeko beheko solairura.

Artxibategian daude dokumentuak modu egokian mantentzeko, artxibatzen duenak hainbat irizpide hartzen ditu kontuan: hezetasuna ongi kontrolatu behar du; temperatura kontrasteak saihestu behar ditu; argiak kalte egiten die artxiboei, tinta jaten die, beraz, normalean argia itzalita egoten da; azkenik, artxibo guztiak kaxa batzuetan egoten dira gordeak, hautsa ez hartzeko..

Koro Pascual artxibariak adierazi zigun Oiartzungo dokumenturik zaharrena, Carta Puebla, desagerturik dagoela. Nolanahi ere, beste dokumentu interesgarriak erakutsi zizkigun, hala nola: Fuero de Ferrerías. Pergaminoz osaturiko liburu horretan, Oiartzun eta Erretereria arteko auzi batzuk jasotzen dira.



Dokumentu horrez gain, Estado Territorial izenekoa ere ikusi genuen. 1499. urtean idatzitako pergaminoan Oiartzungo baserri guztien berri ematen da. Hidalgiak jasotzen diren pergaminoak ere ikusteko parada izan genuen. Gure eskuetan hartu genuena Tomas de Etxegarai zigatarrari buruzkoa zen. Liburu horretan Etxegaraiak demostratu behar zuen bere familia odolez "garbia" zela eta, horretarako, bere familiaren zuhaitz genealogikoa eta beste hainbat agiri jasota zeuden.

Oso bitxia egin zitzaigun Elizaldeko nesken eskola publikoari buruzko liburua, XX. mendearen hasierakoa. Garai hartan, neskak eta mutilak ez zeuden gela berean. Neskek ikasi beharrekoak ere aipatzen ziren, hala nola: caligrafía, historia sagrada (erlijioa), doctrina (errezuak), métrica, higiene, economía doméstica, urbanidad, gramática, matemática (sumar, restar, multiplicar, principios de dividir)...

Bestalde, artxibariak argitu zigunc Artxiboak daukan garrantziaz ohartzeko, azaldu zigun hura gordetzen zen kutxak bi giltza zituela. Giltza bat alkateak gordetzen zuen eta bestea epaile nagusiak. Bi giltzak behar-beharrezkoak ziren kutxa zabaltzeko.



Guk ikusi eta Pascualek azaldu zigun guztiarekin, artxibategi bat zer den eta barruan zer dagoen ikasi genuen. Gure herrian, Oiartzunen, dauden dokumentu zaharrak eta garrantzitsuak aurrez aurre ikusteak zirrara eragin zigun. Hortaz, Latinean ikasten ari ginen Kultura Klasikoa barneratuz, esan dezakegu oso bisita interesgarria izan zela.

Bukatzeko, Koro Pascuali eskerrak eman nahi dizkiogu artxibategia ezagutzeko egindako harreragatik eta guztia azaltzeagatik. Itzuliko garela argi dago! Eskerrik asko Oiartzungo Udalari ere!



Oiartzunen gerra arazoak izan zirenean (1794an, frantsesak etorri zirenean, esate baterako) artxiboa lekuz aldatu zen, hura babesteko. Adibidez, inoiz Goizuetara eraman izan dute, baita Iturriotzen dagoen Dorretxera ere.

DBH 4. Mailako Kultura Klasiko eta Latineko ikasleak





Urteroko hitzorduari ezin huts egin

“Oso ongi pasatzen dugu, jendea zain egoten da zer prestatuko ote dugun”




22 urte dira gurasoek Haurtzaro Ikastolako Inauteri Jaialdian parte hartzen dutela. 1997. urtean egin zieten tarte lehen aldiz. Ordutik ez dute hutsik egin. Urtero prestatu dute mozerroa eta koreografia, eta hamarnaka pertsona pasatu dira taldeetik: gurasoak, guraso ohiak eta ikasle ohiak ere bai. Hasiera hartako taldeetik Esti Irigorrik bakarrik jarraitzen du. Eta ez du uzteko asmorik. Egindako ibilbideaz, taldeak ematen dionaz, aurtengo asmoek hitz egin dugu berarekin.

Noiz atera zineten lehen aldiz, guraso talde bezala, ikastolako inauteri jaialdian?

Nire alaba gazteenak hiru urte zituenean gelan ibili ginen laguntzen, eta txanogorritxuz jantzi ginen. Hurrengo urtean, 1997an, guraso taldea osatzea pentsatu genuen, txikiekin laguntzeaz gain. Orduan egin genuen lehen erakustaldia. Lide Martiarena irakaslea bajan zegoen Ekhi bigarren semea izan berri zuelako, eta ideia gustatu zitzaion hari ere. Guraso batzuk elkartu eta parte hartzea erabaki genuen. Pailazoz jantzi ginen. Bigarren urtean, 1998. urtean, igerilariz. Hirugarrena, txapelaz. Eta horrela gaur egun arte. Hasieratik egin ziguten jaialdian tarte.

Guraso zaretenetik, beti parte hartu duzu inauterietan, ezta?

Lehenengo aldian Karrikatik etorri ginen parte hartzera, egia esan, haurtzaindegitik. Hodei jantzia egin genuen. Gero, esan bezala, 3 urteko gelan, txanogorritxuz jantzi ginen. Ondoren hasi ginen taldearekin. Orduz geroztik ez dut hutsik egin.



Lehen esperientzia horren ondoren, nola jarraitu zenuten?

Hain izan zen polita, dibertigarria... Pentsatu genuela ea zergatik ez genuen jarraitzen, giro ederra genuela, eta ongi pasatzen genuela.

Taldean kide kopuru ezberdina izan duzuen urteetan zehar... Hasieran lau bat ginen. Gero gehixeago izaten joan gara. 50 elkartu ginen gehien izan ginen egunean, baina hori ikastolaren 50. urteurren jaian izan zen. Normalean 20-25 inguru izaten gara azken urteetan, baina jende asko pasatu da bertatik.

Eta nolatangelditzen zara zu bakarrik hasierakoetatik?

Ez dugu kide kopurua asko jaitsi, baina egia da ni naizela hasieratik gelditzen den bakarra. Zergatik? Askok esaten dute garaia pasatu zela, haurrak atera zirela ikastolatik... Nik gustura parte hartzen dut, barre pila egiten dugu...

Nola antolatzen zarete?

Azaroan-abenduan hasita bilerak egiten ditugu. Ekain Susperregi ikasle ohiak asko laguntzen digu, adibidez. Lehen denek artean erabakitzen genuen ideia. Gero, ideia bat erabakitzen hasi ginen, eta norbait ados ez bazegoen, beste ideia bat ekarri behar zuen. Azkenaldian, batzuk pentsatzen dute ia gehiena, eta gero denek parte hartzen dugu prestatzen. Aurten ere taldean dugu Ekain, zorionez. Astearen pare bat alditan biltzen hasten gara, eta azkeneko asteetan gerta liteke hiru egun ere geratzea dantza entseatzeko.

Ikastolako jaialdian aritzeaz gain, gero herria ere girotzen duzue...

Hasieran, haurrak ikastolan zeudenean, umeak gurekin joaten ziren jantokira meriendatzera. Gero, beraiekin, plazara igotzen ginen eta Zaharren Egoitzara. Han dantzan ibili, eta Garmendi Txokolategiaren eta Dibinen dendaren aurrean ere egiten genuen, beti. Kale hori sakratua zen. Kiroldegira joaten ere hasi ginen, eta txoko guztiak bisitatzen genituen: gimnasioan sartzen ginen, txirrindan ibili... Azkeneko urteetan beheko solairuan saltsa dantzatzeko zuten, eta gu ere haiekin elkartzen ginen. Pote bat bertan hartu, afaltzera joaten ginen eta gero berriro herria animatzera.

Saiatu ginen giroa jartzen, AEK-ko kideekin batera, baina hasieran ez zuen arrakasta gehiegi izan. Jarraitzen dugu herria alaitzen, ostirala gure inauteri eguna da.

Zuen zain gaude denak: ikastolan, herrian...

Hala da! Urtero zer egingo ote dugun, zertaz mozarrotuko garen... Hori ezin da galdu! Ezin da utzi!

Animatu ba parte hartzera gurasoak, guraso ohiak, herritarrak, ikasle ohiak...

Egia da bilerak egiten ditugula, gauzak daudela prestatzeko eta tarteka tentsioa, baina sortzen dugun juergak merezi du. Oso ongi pasatzen dugu, jendea zain egoten da zer prestatuko ote dugun. Inork gehiago ez du egiten, eta jarraitu behar dugu! Plazan ere zain izaten dugu jendea. Animatuz gero ez dira damutuko! Ziurtatuta izango dituzte giro ona, barre algarak eta dibertsioa. Iaz batzuk gelditu ziren kide berriak ekarriko zituztela. Beraz, espero dugu gehiago izatea.

Aurten 22. urtea dute. Eta badute 25. urteurrenena iristeko esperantza, umorea galdu gabe. Galduko duzue?

Animatu!





Eskolaz kanpokoak

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK 19-20 IKASTURTEA

Bertsolaritza, euskal dantzak, dantza txapelketak, eskulanak, dantza garaikidea, antzerkia, musika tailerra, abesbatza, sorgin eta aztien heltzea, atletismoa, xakea, eskola kirola, robotika, mekanografia, trikitia, gitarra...eskaintza zabala izaten dugu eskolaz kanpoko ekintzetan ikasturtero.

Beti izan da HH4 urtetik hasi eta DBH4. mailara arteko eskaintza. Aurren, gainera, DBHkoentzat, bereziki, abanikoa gehiago zabaltzen dugu: kirola, osasuna eta elikadura, komikigintza, robotika, abesbatza, besteak beste.

Eskolaz kanpoko ekintzak arrakastatsuak izaten dira, ikasleak pozik eta gustura etortzen dira, eguerdian zein arratsaldean.

Jarduera batzuek asteburuetan edo ikasturte amaieran izaten dute aukera ikasturtean zehar egindako lana kalera atera eta guraso, familia, lagun zein herriko jendeari erakusteko, horien artean: antzezlanak, dantza saioak, musika emanaldiak eta, nola ez, ikastola egunean izaten den erakustaldia.

Bestelako jarduera batzuek, aldiz, astebururo edo asteburu askotan izaten dute emanaldi edo jardunaldiren bat: Eskola Kirola eta euskal dantzaren kasua da hau, esate baterako.

Musika! Zein garrantzitsua den musika bizitzarako, ezta? Entzuteko, jolaserako, dantzarako, abesteko, lotarako, festarako eta gure ikastolan, Haurtzaro Ikastolan, baita jolastordua noiz den adierazteko edo berriro geletara bueltatzeko ere.

Gure ikastolan, garrantzia handia ematen diogu musikari eta horregatik, eskolaz kanpoko ekintzetan, HH4 urtetik hasi eta DBH 4 maila bitarte, musikaz gozatu, musikarekin ikasi eta musikarekin jolasteko aukera ere badute ikasleak.

HH4 eta HH5 urteko ikasleek, MUSIKA TAILERRA eta SORGIN ETA AZTIEN HELTZEAK dituzte aukeran. Musikarekin lotutako bi ekintza desberdin dira:

Musika tailerrean ahotsa nola erabili ikasten dute, jolasaren bidez eta dantzatzuz, musikarekin lotura zuzena izaten dute ikasleek. Musika tresna txikiak ezagutu eta erabiltzen ikasten dute.

Sorgin eta aztien heltzean gorputza mugimenduan jartzeko jolasak egiten dituzte, jolas ezberdinak, musika erabiliz.

LH1. mailatik DBH4. mailara musikarekin lotuta, musika tresnak jotzen ikasteko aukera dute, ahotsa lantzeaz gain.

Batetik, **abesbatza** dugu. Ikasle talde txiki bat dabil abesbatzan ilusio eta gogo handiz. Beste abesbatza batzuekin elkarlanean emanaldi batzuk eskaini izan dituzte ikasturtean zehar.

Gainontzeko eskaintza tresnak ikastera bideratua dago; **gitarra, trikitia, panderoa eta kriskitinak**. Ikasle talde handia dabil musika tresna hauek ikasten, urtetik urtera handitzen doa eskaera, eta monitoreak ere saiatzen dira horri erantzuna ematen.

Ikastolako ikasketak bukatu eta, hala ere, badira ikasleak oraindik ere gustura jarraitzen dutenak talde hauetan parte hartzen eta hori ederra da!

Haurtzaro Ikastolako trikiti eta pandero jole taldean, ikasturte honetan, 20 trikitilari eta 15 pandero-jole dabilta ikasten. Gitarra taldean, 48.

Trikitilari eta pandero-jole taldeak Ikastola Egunean, Xanistebanetan eta urtean zehar tokatzen diren auzotako jai edo bestelako festatan parte hartzen du, kaleak eta plazak alaituz. Ikasturte amaieran, gitarra taldearekin batera, emanaldi



izugarria eskaintzen dute guraso, familia, lagun eta gerturatzen den guztiarentzat.

Ikasle hauei musika tresnak jotzen erakusten eta ahotsa lantzen laguntzen honakoa irakasleak ditugu: Izaro Ansa, Xabier Solano, Maddalen Dorronsoro eta Arkaitz Miner. Bikaina da ikasturte osoan zehar egiten duten lana ikasleekin.

MUSIKARI aipamen berezia egin badiogu ere, gogoratu nahi dugu eskolaz kanpoko ekintzetan ikasturte honetan ikasle asko ari direla beren zaletasunez gozatzen eta, aldi berean, ikasten.

Errepaso bat egitearren hona hemen datu batzuk:

- Haurtzaro Ikastolan egiten diren eskolaz kanpoko 20 ekintzetan 578 ikasle daude ikasturte honetan. Haurtzaroko batzuk, ekintza bakarra egiten dute eta beste batzuek gehiago.

- Guztira 42 hezitzaile ari dira, bakoitza bere esparruan, ikasle hauekin lanean.

Eskerrak ematea besterik ez da geratzen, hezitzaile talde ederrari eta jarrai dezatela horrela lanean ikasle parte-hartzaile hauekin.



MUSIKAREKIN JOLASEAN, MUSIKA ENTZÜTEN MUSIKAREKIN IKASTOLA ETA HERRIKO KALEAK ALAITZEN!

Eskolaz kanpoko ekintzetako koordinatzailea



Bretainia

Familekin elkartrukea, bisitak toki berriak ezagutzeko, jarduera desberdinak... Beste kulturak ezagutzea zein aberasgarria den.

2019ko Prosa eta Poesia saridunak



MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH3	1. SAILA			
	. SARIA	Izar uxo majikoa	KAPUTXINI	Lur Martin Ansa
	. SARIA	Pelikula beldurgarria	GIKALARI	Manex Arabolaza Palomo
LH4	2. SAILA			
	. SARIA	Musikako sekretua	MIKATA	Mireia Sagarra Martin
	. SARIA	Liburu majikoa	SOFIA	Aiara Inziarte Cintero
LH5-6	3. SAILA			
	. SARIA	Aiako Harriko lapurrak	ETXEBESTE	Ane Etxebeste Eizagirre
	. SARIA	Nire aitona	JULIAN	Ilargi Ziaurritz Olaziregi
DBH 1-2	4. SAILA			
	. SARIA	Linaa ahabk	ALMITHALIYA	Malen Etxebeste Lekuona
	. SARIA	Ezusteko sentimenduak	ALAI	Naroa Etxebeste Eizairre
DBH 3-4	5. SAILA			
	. SARIA	Nire zapi kuttuna	ORBELA	Ane Garmendia
	. SARIA	Zer nahiago aske bizitzea baino?	KUIN	Mattin Etxebeste Sanzberro
16-18	6. SAILA			
	. SARIA	Goi	GOI	Malen Elizasu
	. SARIA	Hilkutxa	ODOLJOXE	Luix Mitxelena
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH5-6	3. SAILA			
	. SARIA	Gauaren argipean	K9	Kattalin Arabolaza
	. SARIA	Euskal Herriko komeriak	KATAXULO	Xuar Sarasola
DBH1-2	4. SAILA			
	. SARIA	Amona	AMONA	Malen Etxebeste Lekuona
	. SARIA	Ordua da, kanporatu	ZAITUT	Maia Lasa Betelu
DBH3-4	5. SAILA			
	. SARIA	Munduaren desoreka	IPAR	Haritz Aranburu Mutiloa
	. SARIA	Zergatik?	PES	Maren Aginaga Bote
16-18	6. SAILA			
	. SARIA	Berotasuna	JIMOTE	Leire Ugartemendia Arruabarrena
	. SARIA	Kartzela	LAUBURU	Malen Frantsesena Arnaiz

Zorionak, bada, saria jaso duzuen ikasleei,
baita parte hartu duzuen ikasle guztiei ere egindako lan bikainagatik!



NOBEL SARIDUNAK

ESKERTZARI ESKERTZA



Festa eguna zen batzuentzat baina gu lanean jardun, hemen bakoitzak erabakitzen dutako zer ospatzen dun. Lanera normal joan ginen arren haxe gertatu zitzaigun: gurason batek irakasleon mahaia jakiz bete zigun sentitu gendun norbait ondoan badugula bidelagun; berez arrunta genun eguna berezi egin zenigun.

Doinua: "Oso polita zara izatez"



Aurten ere parte hartu dute Haurtzaro Ikastolako DBH 4ko ikasleek Passion for Knowledge 2019 jaialdiko top@DIPC-Zientziarekin solasean topaketen edizioan.

Zein zientzialari gustatu zitzairen galdetuta, gure ikasleek ez zuten zalantzarik izan: aho batez, Dame Jocelyn Burnell izan zen gehien gustatu zaiena. Bere ahots pausatu baina sendoarekin, argi erakutsi zizkien bere zientzialari bidean bizitutako zailtasunak. Pulsarra ikusi zuen lehena izan arren, aurkikuntza zientifiko horren Nobel saria ez zuen berak jaso, gizonak ziren bere bi ikuskatzaileek baizik. Zalantzarik gabe emakume zientzialarientzat erreferente bikaina iruditu zaie.





URTE BERRI ON!



Informa zaitez gure webgunean No dudes en consultar nuestra web
www.haurtzaroikastola.eus

